

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

ARABAKO GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINITZA
OROKORRAREN PROBINTZIako ZUZENDARITZA

Ebazpena, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzarena, non, prozedura irekiaren bidez, bere jabetzako higiezinetakoa enkante publikoa iragartzen den

Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, 2018ko urriaren 4an Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari baimena eman zion jarraian zerrendatzen den higiezina besterengantzeko:

Hiri-finka: Vitoria-Gasteizko Joaquin Collar kaleko 5. zenbakian kokatuta dagoen Gaixotasun-Aseguruaren Egoitza (Arana egoitza) izateko eraikina da. Eraikin hau hainbat eraikinez dago osatuta: haietako bi nagusi, zeinek beheko solairua eta sestra gaineko hiru solairu dituzten eta sestra azpiko sotoko/erdi-sotoko solairu bat. Vitoria-Gasteizko 2. Jabetza-erregistroan inskribatuta dago eta honako xehetasun hauek ditu: Finka zk.: 32490. Liburukia: 1627. Liburua: 421. Orria: 134. Alta: 3. Orubearen azalera osoa: 16.516 m².

Katastro-erreferentzia: 59005307200000010001LR, 59005307200000010002AR, 59005307200000020001LT, 59005307200000020002AT, 59005307200000030001LV, 59005307200000040001LX y 59005307200000050001LZ.

Eraginkortasun energetikoko ziurtagiriaren kalifikazioa:

- Energia-kontsumoa kWh/m² urteko: 519 D.
- CO₂-Emisioak kgCO₂/m² urteko: 97 E.

Lizitazio-oinarrria: zazpi milioi seihun eta hemeretzi mila eta laurehun euro (7.619.400 euro).

Eratu beharreko bermea lizitazioaren ehuneko 5 izango da: Hirurehun laurogei mila bederatzehun eta hirurogeita hamar euro (380.970 euro).

Enkantea 2019ko urtarrilaren 24an egingo da, 10:00 orduetan, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Probintziako Zuzendaritzaren Batzar-gelan, Wellingtongo Dukearen kaleko 31. zenbakian, Vitoria-Gasteizen (01010).

Enkantea Baldintza-agirian ezarritako administrazio-baldintzei jarraituz arautuko da. Interesdunek eskura dezakete Baldintza-agiria Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Probintziako Zuzendaritzan, Wellingtongo Dukearen kaleko 31. zenbakian, Vitoria-Gasteizen (01010) eta Gizarte Segurantzaren web orrialdean www.seg-social.es.

Halaber, interesdunek 2019ko urtarrilaren 11ren 14:00 orduetara arte proposamenak aurkez ditzakete gutun-azal itxian, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Probintziako Zuzendaritzaren Erregistro Nagusian.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko azaroaren 5ean

Probintziako zuzendaria
AMAIA PALACIOS RUIZ DE AGUIRRE